

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

ERROMATAR EGIPTOKO ELITEAREN EMAKUMEA: EGOERA SOZIO-JURIDIKOA K.O. III. MENDEAN

HISTORIAKO GRADUA / IKASKETA KLASIKOAK

2016/2017

GOIZANE URRUTIA GUTIERREZ

Tutorea: Elena Torregaray Pagola

Abstract

Testamentuek Antzinateko gizabanakoen errealitatea ezagutzeko aukera bikaina eskaintzen dute, pertsona baten ondarearen inguruko informazioa bai eta beste hainbat datu pertsonal eskaintzen baitituzte eta lehen mailako iturri pertsonalak direlako. Oraingo honetan, testamentu bana jasotzen dituzten bi papiro, *P. Princ. II 38* eta *M. Chr. 318 = P. Lips. 1 29*, oinarri hartuta, K.o. III. mendeko erromatar Egiptoko emakumearen munduan barneratuko gara, bere egoera etnikoa eta soziala eta, batez ere, ondare gaitasuna ezagutzeko. Bi dokumentuen egileak emakumeak diran, III. mendean idatzi ziren eta erromatar Egiptoko probintzian kokatzen dira. Horrez gain, garai honetako Egipto kultura eta etnia desberdinak biltzen dituen lurraldea izanik, aparteko arreta jarriko da erromatar botereak ekarritako akulturazio prozesuetan bai eta jatorrizko kultura greziarraren mantentzean.

Abstract

Wills can be an extraordinary way to learn about the life of people from Classical World, since they offer information about their property and, also, some personal details and since they are primary sources, which enables the researcher to get a very close view of historical events. This time, two papyri, *P. Princ. II 38* and *M. Chr. 318 = P. Lips. 1 29*, will be analysed: both are testaments, were made by women, date from the third century and are located in the Roman province of Egypt. The primary goal is to obtain a better understanding of the women of this territory and century, with a particular focus on ethnicity, social level and, especially, patrimonial capacity. In addition to this, given that Egypt is a multicultural and multi-ethnic territory, acculturation processes generated by the new roman power and the maintenance of Greek culture will also be studied.

AURKIBIDEA

1.	SARRERA.....	1
2.	PAPIROEN TRANSMISIOAREN HISTORIA.....	2
3.	TESTUINGURUA	4
4.	III. MENDEKO ERROMATAR EGIPTOKO EMAKUMEA	5
4.1.	Etnizitatearen auzia	6
4.2.	Gizarte maila	10
4.3.	Ondare gaitasuna.....	13
4.4.	Familia-gatazkak	20
5.	ONDORIOAK.....	21
6.	BIBLIOGRAFIA	23
7.	ERANSKINAK	25
7.1.	Erabilitako dokumentuak: Papiroak	25
7.2.	Papiroen argazkiak	28
7.3.	Mapak.....	30
7.4.	Argazkiak	32

1. SARRERA

Emakumearen askatasun mailaren adierazgarri garrantzitsuenetakoa edo, agian garrantzitsuena, bere gaitasun ekonomikoa da; izan ere, hura geroz eta handiagoa izanda, autonomia pertsonala ere handiagoa izango da. Zentzu honetan, testamentua errealitate hori ezagutzeko iturri bikaina da, dokumentu hauek gizabanako baten ondasunen berri ematen baitute bai eta horien gainean *mortis causa* dituen eskubideen berri. Horrez gain, ez da ahaztu behar Antzinateko autoreek emakumeen inguruan idatzi zuten gutxia ospetsu edo boteretsuen inguruan izan zela gehienetan eta, orokorrean, beraien pentsaerak edo emakumeari buruz zeukaten irudiak kondizionatu zuela. Hori dela eta, legezko dokumentuek, hala nola, testamentuek, euren bizimoduari buruzko informazio baliagarriagoa eta fidagarriagoa eskaini dezakete, dokumentu pertsonalak eta lehen mailako iturri historikoak diren heinean.

III. mendeko erromatar Egiptoko emakumeen egoera ezagutzeko helburuarekin, lan honetan testamentu bana jasotzen duten bi papiro, *P. Princ.* II 38 (ikus. eranskinak 7.1.1) eta *M. Chr.* 318 = *P. Lips.* 1 29 (ikus. eranskinak 7.1.2), izango dira aztergai. Xedea emakume hauen etnizitatea, gizarte maila eta, batez ere, gaitasun juridiko eta ekonomikoa aztertzea izango da. Emakumeari aitortu zaion pasibotasunaren aurrean, jarrera aktiboa ere izan zuela eta ondasunak eduki eta jasotzeaz gain, horiek besterentzeko ere gai izan zela erakutsi nahi dut. Horrez gain, papiroetako batek ematen duen aukera dela eta, emakumeen arteko harreman gatazkatsuetan ere murgilduko naiz.

Bestalde, erromatar Egipto kultura anitzeko gizartea den heinean, beraien arteko harreman eta eraginak ere aztertuko dira. Beste hitz batzuetan azalduta, aztergai dugun dokumentua K.o. III. mendekoa izanik, bertan agertzen diren subjektu oro, printzipioz, hiritar erromatarrak izango dira, 212ko Karakalaren ediktuari esker inperioko biztanle guztiak erromatar hiritar bihurtu zirelako. Hala ere, hiritartasun berriak ez zituen aurreko kultura greziarra eta egiptiarra ezabatu. Lan honen bitartez, erakutsiko da nola erromatar hiritartasuna izan arren, erromatar Egiptoko emakumeek jatorrizko kulturari eutsi zioten hein handi batean.

Papiroen edukiari dagokionez, emakumeek egindako kontserbatu diren III. mendeko erromatar Egiptoko testamentu bakarrak dira. Lehenengoa K.o. 264koa da, Hermopolis Megalen aurkitu zen, bertako testuingurua adierazten du eta Aurelia

Serenillaren testamentua jasotzen du. Haren bitartez, Aurelia Serenillak bere ama oinordeko izendatzen du, *kyrios* baten eta *curatore* baten laguntzarekin. Horrez gain, bere senarra legatari izendatzen du. Bigarren dokumentuak Aurelia Eustorgisen testamentua jasotzen du, K.o. 295ekoa da eta, aurrekoa bezala, Hermopolis Megalen kokatzen da. Honetan, Aurelia Eustorgisek bere alaba izendatzen du oinordeko, baina tutorerik gabe jarduten du erromatar *ius liberorum*ari esker. Hala ere, analfabetoa den heinean, senarraren laguntza jasotzen du. Bestalde, bere hildako semearen alargunak ezer ez jasotzeko agintzen du, haren eskutik jasotako tratu ezegokia dela eta.

Hurrengo orrialdeetan papiroen transmisioaren ibilbidea eta testuinguru historikoa landuko dira eta, ondoren, testuen edukiaren inguruan arituko naiz, aurretik aipatutako gai guztiak, etnizitatearen auzian, gizarte mailan, ondare gaitasunean eta emakumeen arteko harreman txarretan murgilduz.

2. PAPIROEN TRANSMISIOAREN HISTORIA

Papiroen ibilbidea jarraitzea lan zaila izan daiteke, gehienak duela asko topatu eta esku desberdinetatik igaro direlako; hori dela eta, askotan bakarrik izaten da posible ezagutzea egun zein tokitan eta bildumatan dauden.

Aurelia Serenillaren papiroa, *P. Princ.* II 38, K.o. III. mendean, antzinako Hermopolis Megale hirian idatzi zen eta bertan aurkitu zen Aro Garaikidean. XX. mendearen lehenengo erdian, Robert Garrett bildumazaleak erosi zuen eta gaur egun bere izenean dagoen Princetongo Unibertsitateko bilduma batean gordatzen da, beste zenbait papiroekin batera. Hermopolis, orohar, oso emankorra izan da papiroetan, Egiptoko beste zenbait metropoli, hala nola, Oxirrisko edo Fayum, bezala; izan ere, hainbat dokumentu, hala nola, testamentuak, erregistro publikoko bulegoetan gorde behar ziren derrigorrez eta bulego hauek *nomoi*tako metropolietan aurkitzen ziren. Papiroaren kontserbazio egoera ez da oso ona eta ezkerreko eta azpiko parteetan puskatuta dago; ondorioz, 13 lerro baino ezin dira irakurri (ikus. eranskinak 7.2.1)¹. Azpimarratzekoa da gure papiroa beste bati itsatsita aurkitu zela, *P. Princ.* II 30, eta bigarren hau, Aurelia Serenillaren amari, Aurelia Asklatarion/Kropillari, dagokiola, non Hermopoliseko *strategosari* eskakizun bat egiten dion. Bere alabaren papiroan baino oraindik lerro gutxiago kontserbatu dira, 8 baino ez (ikus. eranskinak 7.2.1) eta,

¹ <http://papyri.info/ddbdp/p.princ;2:38r> (2017/05/25ean kontsultatuta)

ondorioz, ezin da eskakizunaren arrazoia ezagutu². Amaitzeko, esan beharra dago, historiagileek asko ikertu duten papiroa dela³.

Aurelia Eustorgisen testamentua, *M. Chr.* 318 = *P. Lips.* 1 29, aurrekoa bezala, III. mendean, Hermopolis Megalen idatzi zen eta Aro Garaikidean aurkitu zen. Gaur egun, Leipzigko Unibertsitateko papiro bilduman topa daiteke, 1903an unibertsitate honek erosi zuelako⁴. Papiro honi ezkerreko partearen zati handi bat falta zaio (ikus. eranskinak 7.2.2), baina kontserbatu den kopia bati esker testua ia bere osotasunean osatzea lortu da (Amelotti 1966, 274). Aurreko, papiroarekin alderatuta, hau ez da horrenbeste aztertu⁵.

Bi papiro hauen azterketa ikerketa alor zabalago baten baitan txertatu behar dugu, hain zuzen, papiroen bitartezko emakumeen ikerketan. Emakumeekiko interesa goiz hasi zen papirologoen artean, materia honen inguruko lehenengotariko liburua 1939an argitaratu zelarik, Izabela Biezunskaren eskutik. Garai honetan gairik gogokoenak heleniar Egiptoko emakumeen legezko estatusa eta etnizitatea edo kultura aniztasuna izan ziren. 70eko hamarkadatik aurrera, ikuspegi feministak indarra hartu zuen eta aurreko garaietako ikergaieiei, beste batzuk gehitu zitzaizkien, hala nola, emakumearen ondare gaitasuna. Helburua emakumeen bizitzaren eta esperientzien errealitate objektiboa ezagutzea bihurtuko da. Azkeneko hamarkadetan bi joera nagusitu dira: lehenik eta behin, jendeari existitzen diren dokumentazio papirologiko zabala erabilgarria egitea; bigarrenik, generoaren eta aniztasunaren azterketak (Parca 2004).

² <http://papyri.info/ddbdp/p.princ;2:30> (2017/05/25ean kontsultatuta)

³ Papiroaren oinarritzko aparatu kritikoa (beste askoren artean): Kase, E. H., 1936, *Papyri in the Princeton University Collections II*, Princeton; Taubenschlag, R., 1955, *The law of Greco-Roman Egypt in the light of the papyri, 332 B.C.-640 A.D.*, Varsovia; Pestman, P. W., Rupprecht, H. A., 1995, *Berichtigungsliste der griechischen Papyrusurkunden aus Aegypten IX*, Leiden; Migliardi Zingale, L., 1997, *I Testamenti Romani nei papiri e nelle tavolette d'Egitto : Silloge di documenti dal I al IV secolo d.C.*, Torino; Arjava, A., 1996, *Women and law in late antiquity*, New York; Rowlandson, J., 1998, *Women and Society in Greek and Roman Egypt: A Sourcebook*, Cambridge; Evans Grubbs, J., 2002, *Women and the Law in the Roman Empire: A Sourcebook on Marriage, Divorce and Widowhood*, Londres-New York; Burnet, R., 2003, *L'Égypte ancienne à travers les papyrus: Vie quotidienne*, Paris; Nowak, M., 2015, *Wills in the Roman Empire. A documentary Approach*, Varsovia.

⁴ https://papyri.uni-leipzig.de/receive/UBLPapyri_schrift_00035820;jsessionid=0151429F7C37ADD97873DA3940B49A72?lang=en (2017/05/25ean kontsultatuta)

⁵ Papiroaren oinarritzko aparatu kritikoa: Amelotti, M., 1966, *Il testamento romano attraverso la prassi documentale. I. Le forme classiche di testamento*, Florentzia; Rowlandson, J., 1998, *Women and Society in Greek and Roman Egypt: A sourcebook*, Cambridge; Nowak, M., 2015, *Wills in the Roman Empire. A documentary Approach*, Varsovia.

3. TESTUINGURUA

Lantzen ari garen bi papiroak Hermopolis Megale metropolian (ikus. eranskinak 7.3.1) eta III. mendearen bigarren erdialdean, zehazki, K.o. 264an⁶ eta K.o. 295ean⁷, datatu ziren⁸, Galienoren (253-268) eta Dioklezianoren (284-305) gobernuetan zehar. Hortaz, Egipton gobernu eta administrazioa 3 mende luzez erromatarrak izan diren testuinguru batean gaude.

Erromatarrak Egipton ezartzean, aurreko garaietako errealitateak errespetatu zituzten arren, euren nagusitasuna mantentzeko eta lurraldearen ustiapen eraginkor bat ziurtatzeko helburuarekin, beharrezkoak ziren aldaketa eta hobekuntzak egin zituzten (Riggs 2012, 4). Horrela, gainerako probintzien antzerako gainegitura administratiboa ezarri zuten, ofizial militarrek eta *ordo equesterreko* ofizial gutxi batzuek osatuta. Baina, maila orokorrean, herrialdearen aurreko banaketa administratiboa mantendu zuten, *nomoi*en sistema errespetatuz (Capponi 2005, 25).

Erromatar Egipton *chora* greziar *poleis*etatik kanpo geratzen zen lurralde osoak osatzen zuen (Lorton 2000, 214) eta *nomos* izeneko barruti administratiboetan antolatuta zegoen. Azkeneko hau Egiptoko banaketa nagusia zen, egiptiar inperioaren garaitik existitzen zena eta ptolomeotarrek eta erromatarrek mantendu zutena; erromatarren garaian 40 inguru ziren (ikus. eranskinak 7.3.2). Barruti hauetan herri mota desberdinak aurkitzen ziren, baina nagusia metropolia zen, hiriburuaren funtzioa betetzen baitzuen (Kelly 2011, xvi). Hermopolis Megale, gure papiroak idatzi eta aurkitu diren tokia, metropoli horietako bat zen, zehazki, Egipto Garaiko “Hare” izeneko XV. *nomosekoa* eta, ia bere historia osoan zehar, bertako hiriburua izan zen. Egun, El-Ashmunein bezala ezagutzen da eta Kairoitik 200 km hegoaldera kokatuta dago, Niloren mendebaldeko ibaiertzean. Hermopolis Tot jainkoaren gurtza zentroa zen, greziarrek Hermes jainko greziarrarekin identifikatzen zutena; hortik datorkio, hain zuzen, Hermopolis izena (Bailey 2012, 192).

⁶ *P. Princ.* II 38.

⁷ *M. Chr.* 318 = *P. Lips.* 1 29.

⁸ *M. Chr.* 318 = *P. Lips.* 1 29 papiroaren kasuan, data zehatza dokumentuak eskaintzen du, boterean dauden enperadore eta kontsulen bitartez: “In the 11th and 10th year of our lords Diocletian and Maximian, Augusti, and the 3rd year of our lords Constantius and Maximian, the most glorious Caesars, in the consulship of Nummius Tuscus and Annius Anullinus, the most excellent” (ikus. eranskinak 7.1.2).

Erromatar Inperioaz ari gerenean, III. mendea gainbehera eta ezegonkortasun garaitzat hartzen bada ere, Hermopolisek, Egiptoko metropoli gehienek bezala, inoiz baino garapen handiagoa bizi izan zuen, imajina daitezkeen ia alor guztietan: gobernu-erakundeetan, populazioan eta arkitekturan, besteak beste (ikus. eranskinak 7.4.1) Ondorioz, mende honetan zehar, Hermopolis 40.000 biztanle izatera iritsi zen. Gainbehera eta ezegonkortasun hitzak erabiltzen dira, Severo Alexandro 235ean hil zenetik Dioklezianok 284an boterea eskuratu zuen arte, 26 enperadore desberdin egon zirelako eta beste hainbat boterera iristen saiatu zirelako; horrez gain, Erromatar Inperioko zenbait lurralderen kontrola eskuratu zuten etsaiak agertu ziren. Horrela, 269. eta 272. urteetan zehar, Egipto Palmirako Inperioaren menpe egon zen. Berebat, urteetan zehar emandako txanponaren debaluazioaren ondoriozko hiperinflazioa, landa eremuetarako exodoa edo hirien gainbehera mende honetako ezaugarriak ditugu. Hala ere, eta metropolien garapenak aditzera ematen duen moduan, Egiptoren kasuan ez dirudi eguneroko bizitza, orokorrean, modu sakonean afektatuta ikusi zenik egoera honengatik (Rowlandson 1998, 12-15).

Dioklezianoren gobernuan zehar, Egiptoko administrazio-egiturak eraldatu ziren eta lurraldea botere inperialera estuago lotzen saiatu zen. Enperadoreak Egiptoko lurraldea probintzietan banandu zuen, lehenengoz, bi probintzietan eta, gero, gehiagotan eta tokiko administrazioa ere transformatu zuen: *nomos* bakoitza metropolitik gobernatuko zen, *logisterraren* (latinez, *curator civitatis*) bitartez eta *exactorraren* (antzinako *strategosa*⁹ ordezkatuz) eta beste ofizial batzuen laguntzarekin. Kargu guzti hauek klase bouletiko eto kurial berritik aterako ziren, eta ez kanpotik, aurreko garaietan bezala (Rowlandson 1998, 15-16).

4. III. MENDEKO ERROMATAR EGIPTOKO EMAKUMEA

Atal honetan bi papiro hauetan islatzen diren dinamika interesgarrienak azalduko ditut, III. mendeko Egiptoko emakumeen egoera hobeto ulertzeko. Horietan lehena etnizitatearen auzia da, badakigulako garai honetan Egipton hiru etnia desberdin, egiptiarrak, greziarrak eta erromatarrak, elkarrekin bizi izan zirela eta horrek aldaketak

⁹ *Strategosa nomosaren* burua zen. Erromatar garaian zehar, aurretik izandako autoritate militarra galdu eta kargu zibil hutsa bilakatu zen. Beste hainbat funtzioaren artean, *strategosak* auzi fiskal, administratiboak eta judizialak ikuskatzen zituen, zentzuak, ganadua eta lur-erreklamazioak jasotzen zituen eta erregistro publikoko bulegoa zuzentzen zuen, non aipatutako dokumentuak biltzen ziren: Capponi 2005, 25.

sortu zituela gizartearen identitatean. Bigarrena, gizarte maila litzateke, erromatar administrazioak konkista baino lehenagoko bizimoduetan eragina izan zuelako. Hirugarrena ondare gaitasunari dagokio, non emakumearen gaitasun juridikoak eta ahalmen sozialak ikusi ahalko diren. Eta, laugarrena eta azkena, gai berezi eta interesgarri bat dugu: albo batera utziz elementu juridiko eta administratiboak, familiako harremanetan barneratuko naiz, emakumeen arteko gatazken inguruan mintzatzeko.

4.1. Etnizitatearen auzia

Bi testamentu hauen elementu deigarrietakoa bertan agertzen diren gizabanako guztiek izen-deitura mixtoa dutela da. Subjektu guztiak sistema erromatarraren *tria nomina* edo *dua nominaren* bidez izendatuta daude¹⁰, baina *nomen* erromatarra duten bitartean, *cognomen* greziarra dute. *P. Princ.* II 38 papiroaren kasuan, baditugu Aurelia Serenilla/Demetria¹¹, Filippianosen alaba -testamentugilea-, Aurelio Hermeinos/Akiles, Eudaimonen semea -Aurelia Serenillaren senarra eta eta *kyriosa*-, Aurelio Valerio Longos -Aurelia Serenillaren *curatorra*- eta Aurelia Asklatarion/Koprilla -Aurelia Serenillaren alaba eta jaraunslea-. *M. Chr.* 318 = *P. Lips.* 1 29 papiroan, berriz, Aurelia Eustorgis -testamentugilea-, Aurelio Triadelphos -senarra-, Aurelia Hiperchion/Ammonarion -alaba eta jaraunslea- eta Aurelia Tameis -Aurelia Eustorgisen semearen alarguna-. Bigarren papiro honetan Aurelia Esutorgisen semea, Sarmates, izen bakarrarekin izendatzen da, hala ere, suposa daiteke Sarmates bere *cognomena* zela eta Aurelio *nomena* ere izango zuela. Izen deitura mixto honek garaiko Egiptoko kultura eta nortasunen nahasketari eta, batez ere, etnizitatearen auziari buruz, pentsarazten digu.

Etnizitatearen arazoa modu desberdinean bideratu izan da historian zehar. XIX. mendeko arrazan oinarritutako teorietatik hasiz, hauek baztertu eta ikuspuntu antropologikoagoek nagusitzeraino (Fischer-Bovet 2013, 2519). Antzinateari dagokionez, etiketa etnikoak horiek erabiltzen dituen erakunde, talde edo gizabanakoaren arabera alda daitezke. Vandorpen aburuz, Erromatar Egiptoko dokumentazioaren etnien erabilera ulertzeko hiru maila ezberdinu behar ditugu:

¹⁰ Inperio garaian zehar, *tria nominaren* sistema baztertuz joan zen eta bi izenen eredia nagusitu zen: Vandorpe 2012, 262.

¹¹ Egipton sarri lotura familiarrak izen edo *cognomen* bikoitzaren bitartez adierazi ziren. Hau da, lehenengo *cognomenak* aitaren familiari egin diezaioke erreferentzia eta bigarrenak, berriz, amaren aitaren familiari: Vandorpe 2012, 271.

lehen, gobernuak aitortutako etnia da (“legearen arabera egiptiarra naiz”), bigarrena, taldeak berak bere buruari aitortzen dion etnia da (“greziar sentitzen naiz”) eta, hirugarrena, zenbait ezaugarri erlijioso, sozial edo kultural partekatzearen ondoriozko etnia (“greziar hizkuntza erabiltzen dut, greziar ohiturak jarraitzen ditut eta greziar erara janzten naiz, hortaz greziarra naiz”) (2012, 268).

Lehenengo etnia kategoria zehaztea lan errazagoa da. Dokumentuetako subjektuek erromatar izendapen sistema erabiltzen dutela, ez direla esklaboak eta, garrantzitsuena, 212an Karakala enperadoreak, *Constitutio Antoninianaren* bitartez, inperioko biztanle guztiei erromatar hiritartasuna aitortu zuela ikusita, pentsa dezakegu bi testamentu hauetan agertzen diran emakumezko nahiz gizonezko guztiak hiritar erromatarrak izango zirela legearen eta gobernuaren arabera. Izenei so egiten badiegu, ikus dezakegu, batek izan ezik, Aurelio Valerio Longosek, guztiek *Aurelius nomina* dutela; hori dela eta, ondoriozta dezakegu pertsona hauen arbasoek Karakalaren ediktuaren bitartez hiritartasuna lortuko zutela, Valerio Longosen arbasoak izan ezik, azken honek lehenago lortuko zuelarik.

Ordea, beste bi etnia kategoriak, batez ere, bigarrena, zehaztea zailagoa dirudi. Izan ere, gizabanako hauek erromatar ala greziar sentitzen ziren? Eta greziar ala erromatar ezaugarri kulturalak zituzten? Bestalde, ez dugu ahaztu behar Egipton gaudela eta posible dela ere pertsona hauek egiptiar sentitzea. Galdera hauei erantzuteko, aurreko garaiei so egitea ezinbestekoa da.

Ptolomeotarrek, euren erresuma ezartzean Egipton, banaketa bat ezarri zuten arlo fiskalean, greziarrak eta egiptiarrak bereiziz; sistema honetan greziarrak zenbait zerga ordaintzeaz salbuetsita zeuden. Hala ere, desberdintasun fiskalak alboratuz, ez dirudi legezko beste desberdintasunik zegoenik. Hori bai, posible da prestigioaren aldetik, greziarra izatea hobeto kontsideratuta egotea. Edozelan ere, bi taldeen arteko interakzioa oso handia izan zen, bereziki, *chorako* eremuan. Egiptiar eta greziarren arteko negozioak eguneroko gauzak ziren eta, denborak aurrera egin ahala, geroz eta egiptiar gehiago aurkitzen ditugu administrazioan nahiz armadan. Bi taldeetako kideen arteko ezkontzak seguruenik dokumentazioak erakusten duena baino ugariagoak ziren, batez ere greziar gizonezkoen eta egiptiar emakumezkoen artean. Egiptiar hauek administrazioan erabiltzen zen greziar hizkuntza azkar ikasi zuten eta ez zuten greziar izenak edo izen bikoitzak bereganatzeko arazorik izan. Biztanlegoaren zenbait estratuen

akulturazioa ez zen alde bakarrekoa izan, greziarrek egiptiarren zenbait erritu, jainko eta medikuntza eta literatura elementu bereganatu baitzituzten (Fischer-Bovet 2013, 2519-2520). Pertsona ugari kulturabidunak eta elebidunak ziren eta testuinguru administratibo eta militarretan greziar izen eta nortasuna erabiltzen zuten bitartean, sazerdote gisa aritzen zirenean egiptiar izen eta nortasuna erabiltzen zuten (Rowlandson 2010, 252).

Erromatarrek Egipto hartzean, berriz, populazioa hiru kategoria legal eta fiskaletan banandu zuten: erromatarrak, hiru *poleisetako* (gero lau, K.o. 130ean Antinoopolis sortzean) hiritarrak eta egiptiarrak, gainerako populazio osoak osatuta (Vandorpe 2012, 262). Lehenengo bi kategoriek talde pribilegiatua osatzen zuten, zergak ordaintzeaz salbuetsita baitzeuden. Sistema berri hau jaiotzan oinarritu zen, talde desberdinen nahasketa debekatuz eta zigortuz eta aurreko garaietako nahasketa eta asimilazio prozesua geldituz. Horrela, erromatar bihurtzea gauza zaila bilakatu zen, askotan bakarrik izan zena posible enperadore eta gobernadoreen emakiden edota armadako zerbitzuaren bitartez (Lewis 1983, 17).

Laugarren gizarte bereizketa bat ere egin zuten, baina hirugarren gizarte taldearen, hau da, egiptiarren taldearen barruan: metropolietako hiritarrak. Egiptoko lurralde osoa ezin zenez hiru *poleis* greziarretatik gobernatu soilik, erromatarrek *nomoi*etako metropolietako klase altuetara, helenizatuenak baitziren, jo zuten. Talde honetako pertsonak ez zeuden zergak ordaintzeaz salbuetsita, baina kopuru txikiagoan ordaintzen zituzten. Horiekin batera, metropolietan *gymnasion* erakundeko kideez osatutako klasea¹² zegoen. Hasiera batean, metropolitar taldeak metropolian bizi ziren greziarrak eta helenizatutako egiptiarrak biltzen zituen eta gimnasioko taldearen parte izateko aski zen aitak estatus hori edukitzea. Baina, K.o. 72.-73. urtetik aurrera, arauak gogortu egin ziren eta metropolitar maila izateko beharrezkoa zen frogatzea aitak eta amaren aitak estatus hori zutela eta, gimnasiokoaren kasuan, bai amak eta bai aitak bazutela. Gogortze honek metropolietako biztanle “helenizatuagoen” eta kanpoaldeko biztanle “egiptiarragoen” nahasketarekin amaitu zuen eta, ondorioz, eragin heleniarrak metropolietan indartzen joan ziren bitartean, kultura egiptiarra ahulduz joan zen. Hori dela eta, Vandorperen eta Fischer-Boveten aburuz, bi talde hauetako kideek, legearen

¹² “*Gymnasial class*”: Vandorpe 2012, 263. Klase hitza erabiltzen dugu, gimnasiokoa ez zelako beste hiruak -erromatarrak, *poleisetako* hiritarrak eta egiptiarrak- bezala, gobernuak ezarritako gizarte kategoria bat, baizik eta berez sortutako eta hiri bakoitzeko biztanle aberatsenek osatutako taldea, gutxika botere-erakundeez jabetzen joan zirenak.

arabera, egiptiar estatusa izan arren, euren burua greziartzat hartzen zuten (2012, 264; 2013, 2520).

Baina Rowlandsonek (2013, 214) azalpen hau zalantzan jartzen du eta bere ustez, II. mendeko metropoliko nahiz *gymnasione*ko klaseko kide bati galdetuz gero, bere burua egiptiar eta greziartzat aurkeztuko zuen. Kontserbatu diren papiro, ostraka eta inskripzioen artean, batek ere ez du jasotzen gimnasioko pertsonak zein etniazat hartzen zuten euren burua eta, bere ustez, teoria tradizionalak hiru premisa nagusitan oinarritzen dira: *gymnasiona* erakunde greziar garbia zela, greziar izenen nagusitasuna gimnasioko gizonezkoen artean eta egiptiarrekiko ustezko mespretxua. Autore honek gogoratzen duen moduan norbaiten etnia nomenklaturan oinarritzea beti ez da egokia, kasuak aurkitu direlako non gizabanakoek izen greziarrak izan arren, egiptiar jainkoak gurtzen zituzten. Bestalde, egiptiarrekiko mespretxuari dagokionez, askotan, uste hau autore erromatarren, adibidez, Tazitoren idazkietan, oinarritzen da eta hauek estereotipoetan oinarritzen dira eta ez dute papiroetan jasotakoarekin bat egiten. Idazterakoan erabilitako hizkuntzarekin ere kontu handia izan behar dela dio, beti ez baitu kalean edo etxean erabilitakoaren berdina izan behar eta (Rowlandson 2004, 160).

Erromatar hiritartasuna behin eskuratuta, arazo berdina agertzen da, izan ere, ikusi ahal izan dugun moduan, legeak aitortzen duen etniak ez du beti bat etorri behar norberaren pertzepzioarekin edo ezaugarri kulturekin. Bi papiro hauetan agertzen diren elementuei so egiten badiegu, gehienak greziarrak dira. Erabilitako hizkuntza eta subjektu guztien *cognomenak* eta Aurelia Serenillaren senarrak eta aitak egikaritutako karguak greziarrak dira, *eutheniarches* eta Hermopolis Megaleko *boulearen* kontseilaria (“βουλ(ευτοῦ)”). Are gehiago, Aurelia Eustorgisek greziar testamentua (“ἐλληνικοῦ βουλήματος”) gauzatu duela adierazten du¹³. Horrez gain, pertsona hauek Hermopolis Megaleko metropoliko eliteko kideak dira eta aurretik esan dugun moduan, talde hau greziarrez osatuta zegoen hein handi batean edo, behintzat, bertako kideak oso helenizatuta zeuden. Bestalde, Aurelia Serenillak, legez erromatar hiritartasuna izan arren, greziar zaindaria edo *kyriosa* dauka tutore erromatarra izan beharrean, azkeneko

¹³ Egipto erromatar probintzia bihurtzean, gobernu berriak inposatu zuen testamentuak latinez idatzi behar zirela eta erromatar erara gauzatu behar zirela, zazpi testiguren presentziarekin. Hori bai, gero posiblea zen grekeraz kopia bat egitea. Hala ere, *Constitutio Antoninianaren* ondorioz, 235ean inperioko biztanle guztiek hiritartasuna eskuratu zutenean, hiritar erromatar berri askori oso zaila egingo zitzaion testamentua latinez idaztea. Hori dela eta, Alexandro Severo enperadoreak arauak malgutu eta grekeraz egitea ahalbidetu zuen; emakida honen ostean, testamentuetan, greziar hizkuntzaz gain, greziar eduki eta formulak ikusi ahal izango dira: Evans Grubbs 2002, 322.

hau emakumearentzat onuragarriagoa izan arren. Hala ere, zenbait elementu erromatar ere antzeman ditzakegu: data enperadore eta kontsul erromatarren bitartez adierazten da, Aurelia Serenillak, 25 urtetik beherakoa den heinean, erromatar zuzenbidearen araberrako *curator* baten bidez egin du testamentua eta Aurelia Eustorgisek, erromatar *ius liberorum*aren bitartez, zaindaririk gabe jarduten du.

Hortaz, testamentu hauetan agertzen diren pertsonak eta, batez ere, Aurelia Serenilla eta Aurelia Eustorgis -hauek baitira dokumentuetako protagonistak eta informazio gehien eskaintzen dutenak-, hirugarren kategoria etnikoaren arabera (hau da, euren ezaugarri kultural eta sozialak arabera), greziarrak zirela, baina eragin erromatarrak ere bazituztela esan dezakegu, akulturazio prozesu baten seinale, aurreko garaian egiptiarren eta greziarren artean gertatu zen moduan. Zer sentitzen ziren erabakitzea gauza zailagoa da, ordea. Vandorperen eta Fischer-Boveten azalpenei so eginez gero, pentsa dezakegu pertsona hauek greziar sentituko zirela, baina Rowlandsonen ikuspuntua oinarri hartuta, posible da, pertsona hauek greziar eta erromatar sentitzea eta, are gehiago, egiptiar ere sentitzea.

4.2. Gizarte maila

Aztertutako papiroak testamentuak izanik, aukera paregabekoa eskaintzen dute erromatar garaiko Egiptoko emakume testamentugileen gizarte maila ezagutzeko. Zentzu honetan, ondarea helburu horretarako informazio iturri bikaina izan daiteke, norberaren aberastasuna estatusaren araberrakoa izaten delako normalean. Eta ondasun guztien artean, lurra zen garrantzitsuena Antzinatean, ikuspuntu ekonomikotik nahiz ideologikotik; eta, hain zuzen, hori zen eliteak gehien desiratzen zuena (Bagnall 2003, 129). Hala ere, aztergai diren testamentuek ezer gutxi eskaintzen dute alor honetan. Aurelia Serenillarenean atal ugari falta dira eta ezin ditugu bere osotasunean ezagutu *mortis causa* utzitako ondasunak. Dakigun bakarra da, Ibion Peteaphthi¹⁴ izeneko herrixka batean eta hurbileko beste herri batean lurrak zituela eta horietatik zenbait *arouras*¹⁵ lur (aipatutako lehenengo herrian bost eta bigarreanean hiru) utzi zizkiola bere senarrari legatu baten bitartez. Eustorgisen kasuan, informazioa are eskasagoa da. Ondasunak, eta horien artean etxe bat, bazituela badakigu, bere alabari adierazten baitio

¹⁴ Ibion Peteaphthiren kokapen zehatza ezezaguna da, bakarrik dakigu Hermopoliseko *nomoseko* herrixka bat zela: Talbert, J. A. (arg.), 2000, *Barrington Atlas of the Greek and Roman World*, Princeton, 1153.

¹⁵ Egiptiar lur neurri batean (*stjat*) greziar baliokidea; gutxi gora behera akre baten bi heren dira: David, R., 2014, *Voices of Ancient Egypt: Contemporary Accounts of Daily Life*, Santa Barbara, 226.

bere semearen alargunak horietatik ez duela zati txiki bat ere ez jasoko, baina ez du inolako zerrendarik ez deskribapenik egiten. Hortaz, emakume hauen ondarean oinarrituta ezin dugu euren gizarte maila asmatu.

Euren egoitza ere gizarte estatusaren seinale izan daiteke. Testamentuetako bi emakumeak, Aurelia Serenilla nahiz Aurelia Eustorgis, Hermopolis Megale metropoliko hiritarrak dira. Eustorgisen kasuan, testamentuan bertan adierazten du hiri honetan erregistratuta dagoela. Serenillaren kasuan, berriz, dokumentuan bere egoitza adierazten ez badu ere, aipatzen dituen pertsonak -bere aita, bere senarra eta *kyriosa* eta bere kuratorea- Hermopolisekoak izanik eta papiroa bertan topatu izanenez, hiri honetakoa dela uler daiteke. Ptolomeotar garaian zehar, greziarrak eta eliteko kideak hirietan nahiz nekazal guneetako herrixketan ezarri ziren, baina, erromatar garaitik aurrera, elitea hirietan aurkituko dugu ia gehienetan. Nekazal guneetan eta herrixketan ere lurak eta ondasunak izango zituzten, Serenillaren kasuan bezala, Ibion Peteaphthin eta hurbileko beste herri batean lurak dituen, baina orain ez dira bertan biziko eta administratzaileen bitartez kudeatuko dituzte ondasun horiek (Vandorpe 2012, 266). Honi gehitzen badiogu, aurreko azpiatalean azaldu bezala, greziarrak zirela eta erromatar Egiptoko elitea gizartearen sektore helenizatuena zela, pentsa dezakegu, Aurelia Serenilla nahiz Aurelia Eustorgis goi mailako kideak zirela eta, zehatzago, Hermopolis Megaleseko metropolitikaren elitearen parte zirela.

Hala ere, bi Aurelien estatusa erabat argitzen duten faktoreak, beraiekin erlazionatuta dauden gizonezkoak dira, izan ere, kargu administratibo altuak egikaritzen dituzte edo pertsona garrantzitsuekin harremanak dituzte. Aurelia Serenillaren aita, Filippianos/Kopreus, Hermopoliseko metropoliko kontseiluko kide ohia da eta bere senarra hiri berebereko *euteniarchesa* da.

Hermopolis Megale Egipto Garaiko XV. *nomoseko* hiriburua zen eta bertatik lurraldea gobernatzen eta kontrolatzen zen. Hermopolis asentamendu handia eta urbanizatua izan arren, erromatarrek, Egiptoko gainerako metropoliei bezala, ez zioten hiri estatusa aitortu eta, hortaz, ez zuen Egiptoko *poleis* greziarrek zuten *boulea* edukiko eta bere barne bizitza zuzentzeko eskubiderik eskuratu. Hala ere, konkista gauzatu eta hurrengo mendeetan zehar, *chorako* metropoliek poliki-poliki greziar hirien ezaugarri fisiko eta instituzionalak bereganatzen joan ziren: hiri-eraikinak, bainuak, gimnasioak, zutabe-kaleak, greziar estiloko tenpluak... Azkenik, K.o. 200ean Septimio Severo

enperadoreak hiri kontseiluak aitortu zizkien metropoliei, benetako greziar *poleis* bihurtuz (Rowlandson 1998, 12-15).

Boulea hiriaren bizitza zuzentzen zuen erakundea zen; bere ardua nagusiak hiriaren finantzak eta zerga bilketa ziren, baina beste betebeharrak ere bazituen, hala nola, biztanleriaren zentsuak egitea eta horien estatusak zehaztea. Bere jarduerak aurrera eramateko berak aukeratutako ofizial desberdinen laguntza zuen, adibidez, gimnasiarka edo *eutheniarchesa*. Gimnasiarka *gymnasion*aren burua zen eta bere jarduera nagusia gazteak igurzteko olioaren oparitzea zen. *Eutheniarchesa* ez zen horren garrantzitsua, baina bere lana ezinbestekoa zen, hiria elikagaiez hornitzeaz arduratzen baitzen (Bagnall 1993, 57-58).

Boulearen ezarpenak helenizatutako hiritar aberatsenez osatutako elite berri baten agerpena ekarri zuen: klase “bouletikoa” edo “kuriala”, kontseilariak edo *bouletaiak* eta beraien familiak osatuta. Aberatsa izatea ezinbesteko premisa zela badakigu, Oxirrinkoko kontseiluan sartzeko 10.000 drakmako diru sarrera ordaindu behar zela dakigulako (Rowlandson 2010, 251). Gainera, klase bouletikoaren kideek beste kideekin lehiatu nahi izanez gero, inbertsio eta liturgia handiak aurrera eraman behar zituzten; lehiaketa hau, gainera, ez zen hiri bereberekoko kideetara mugatzen baizik eta hiri desberdinen arteko lehiaketa bihurtu egin zen. Hori dela eta, III. mendean zehar, metropoliek sekulako garapena bizi zuten Egipton. Kontseilari izatea estatusaren adierazle inportanteenetakoa bilakatu zen eta, Vandorpek adierazten duen moduan, horren garrantzitsua zen, ezen seme-alabek sarri aitaren estatus hori aldarrikatzen zuten, euren dokumentuetan aita kontseilari ohia zela gogoratuz. Horixe da, hain zuzen ere Aurelia Serenillaren kasua (2012, 265).

Aurelia Eustorgisen senideek kargurik egikaritu zuten edo ez ezezaguna zaigu. Hala ere, datu oso interesgarri bat luzatzen digu: bere semeak Alexandriako gimnasiarkari 12 talentu zilar utzi zizkion. Hau da, honek adierazten digu bere semea gizon aberatsa zela eta pertsona garrantzitsuekin harremanak zituela eta negozioetan ibiltzen zela. Izan ere, *gymnasiuma* greziar hirietako esparru sozialaren erdigunea izanik, esan genezake, ikuspuntu sozialetik gimnasiarka hiritarren burua zela (Bevan 1927, 104). Gainera, bere testamentuan aipatzen den gimnasiarka ez da edozein, baizik eta Egiptoko hiri garrantzitsuena zen Alexandriakoa.

Hortaz, dirudienez, Aurelia Serenilla eta Aurelia Eustorgis eliteko kideak ziren eta familia aberatsen parte ziren. Zoritxarrez, emakume hauen ondare pertsonalaren eta bizitza publikoaren inguruan ezer gutxi jakin dezakegu papiro hauen bitartez. Emakume aberatsak bizitza publikoan parte hartzen hasi ziren ekialdeko Grezian erromatar probintzia bihurtu eta gutxira. *Demiurgos* edo gimnasiarka bezalako karguak bereganatu zituzten, eraikinak finantzatu zituzten eta estatuak eta inskripzioak jaso zituzten euren *beneficiaren* ordainean. Egipton, horrelako emakumeen kasuak beranduago identifikatzen dira, zehazki, guri dagokigun III. mendean. Horrela, III. mendearen lehenengo erdian, Oxirrinko hirian, Klaudia Isidoraren kasua dugu, gimnasiarka gisa jardun zuena (Vandorpe 2012, 267). Emakume honen inguruan aurkitu diren papiro anitzei esker, informazio ugaria dugu berari buruz. Bi Aureliak bezala, goi mailako emakumea zen eta bere aita Alexandriako gimnasiarka eta *hypomnematographusa*¹⁶ zen, hau da, kargu garrantzitsuak egikaritzen zituen, Aurelia Serenillaren senideek bezala. Horrez gain, ondasun ugari zituen, etxeak nahiz lurak, Oxirrinkon eta inguruan (Gonis, Thomas, Hatzilambrou 2006, 48-51). Baina, esan bezala, zoritxarrez kasu honetan ez dugu inolako daturik gaia gehiago sakontzeko.

4.3. Ondare gaitasuna

Aurretik esan bezala, testamentua emakumearen gaitasun ekonomikoa eta autonomia maila ezagutzeko bide bikaina izan daiteke. Zoritxarrez, testamentua egiteko gaitasuna ez da Antzinateko kultura eta herri guztietako emakumeek zuten eskubidea. Horrela, adibidez, Alexandria *polisekoek* testamentua egitea debekatuta izan zuten ptolomeotar nahiz erromatar garaian zehar, (Rowlandson 1995, 313). Erromatarrek berriz, aspaldiko garaietatik zuten eskubide hori. Egiptoko kasuan, errealitate hau ezagutzea zailagoa da. 4.1. atalean ikusi ahal izan denez, Egipto lurralde zabal eta konplexua izan zen, non kultura eta etnia desberdinak elkarrekin bizi eta sarri nahasi egin ziren eta faktore horrek, nola ez, eragina izan zuen zuzenbidearen esparruan eta, hortaz, emakumeen ondare gaitasun eta eskubideetan.

Egipto helenistikoaz hitz egiten denean, normalean, emakumeentzako aukera handiko lurralde gisa ikusi izan da, bereziki, Atenas klasikoarekin alderatuta. Egiptiarrek greziarrek baino eskubide zabalagoak zituztenez, hala nola, gizezkoen

¹⁶ Ptolomeotar garaian errege-idazkarietako bat zen; erromatar agintaldian, berriz, prefektuari bere funtzio judizialean laguntzen zion Alexandriako magistratua zen.
<http://www.attalus.org/docs/glossary.html> (2017/05/22an kontsultatuta)

inolako laguntzarik gabe jarduteko edo herentzietan gizonezkoen zati berdina jasotzeko aukera, ptolomeotar garaian emandako bi taldeen arteko nahasketaren ondorioz, greziar emakumeek eskubide anitz irabazi zituzten eta egiptiarrek zenbait ere galdu. Hala ere, andrazkoen askatasun handia defendatzen duten interpretazio hauekin kontu handiz ibili behar dela dio Rowlandsonek, beti ez direlako errealitatearekin bat etortzen (1995, 301-303). Zentzu honetan azpimarratzekoa da ez dela kontserbatu ptolomeotar garaiko emakumeek egindako testamentu bat ere ez, Egipto erromatar probintzia bihurtzean, hauek eguneroko gauza bihurtu ziren arren. Hori dela eta, posible da aurreko garaietan emakumeek testamentugile bezala jardutea debekatuta izatea. Hala ere, Rowlandsonen aburuz, gabezia honen atzean ez litzateke debekua egongo, ondasunen eskasia baizik eta, hortaz, testamentua egiteko behar eza (1995, 313).

Iraganeko arauak edozein izanda ere, bi papiro hauek argi uzten dute III. mendeko erromatar Egiptoko emakumeek euren ondarea testamentuaren bitartez transmititu zezaketela, muga handiagoekin edo txikiagoekin. Horrela, Aurelia Serenillak bere *kyrios* edo zaindariaren eta *curator* baten bitartekaritza duen bitartean, Aurelia Eustorgisek ez du inolako tutoreren beharrik.

Emakumearen zaindaritza Antzinateko hainbat lurralde eta kulturetan aurkitzen dugun erakundea da. Gaiok berak dio Inperioko probintzietan bizi ziren emakume ez erromatar gehienak, erromatar *tutelaren* menpe egon ez arren, antzeko zaindaritza baten menpe zeudela. Horrela, Greziako *poleisetakoek* nahiz greziar Egiptokoek *kyrios* izeneko zaindaria zuten. *Tutela mulieruma* Erromaren aurreneko garaietatik zetorren erakundea zen eta, hasiera batean, oinordekotza sistemarekin lotuta zegoen. Alabak aitaren herentziaren zati nahiko handia jaso zezakenez, kaltegarria izan zitekeen gizonezko senideentzat, jasotako ondasunak beraiei interesatzen ez zitzaien moduan besterendu ezean. Hori dela eta, harreman agnatiko hurbilena zuen gizonezkoa izendatzen zen tutorea, salbu eta testamentuan aitak beste tutore bat izendatzen bazuen. Hala ere, sistema hau malgutzen joan zen eta emakumeak autonomia handiagoa irabazten joan ziren; azkenik, Klaudio enperadoreak zaindaritza agnatikoa debekatu zuen. Hemendik aurrera, tutoreak aitaren testamentuaren edo magistratu baten bitartez izendatuko ziren. Hark ez zituen bere ondasunak administratzen eta ezin zuen bera ondasun horiekin ezer egitera behartu. Baina, teorian, haren baimena behar zuen legezko zenbait egintzetarako, hala nola, *res mancipiak* saltzeko, esklaboak

manumititzeko, dotea emateko edo testamentua egiteko. Teorian diogu, III. mendetik aurrera, tutoreek euren botere gehienak galdu zituztelako; liberto baten nagusiak eta emantzipatutako alaba baten zaindariak baino ez zituzten benetako tutore-ahalmenak mantendu. Gainerako *tutores* guztiak aldatuak izan ahal ziren emakumeak nahi beste aldiz eta juzizioz beraien onespena ematera behartuak izan ahal ziren (Arjava 1996, 112-113).

Tutoretzaren erakundea are gehiago ahuldu zen Augusto enperadoreak *ius liberorum* pribilegioa ezarri zuenean, emakume erromatarren ugalkortasuna areagotzeko helburuarekin. *Ius trium liberorum* izeneko pribilegioak tutorerik gabe jarduteko gaitasuna eskaintzen zien, hiru seme-alaba zituztela frogatuz gero. Ez dago argi nahikoa zen hiru seme-alaba bizirik jaio izana edo beharrezkoa zen eskubidea aldarrikatzean hirurak bizirik egotea. Badirudenez, bigarren aukera eman behar zen; hala ere, behin pribilegio hori eskuratuta, behin eta berriro erabil zitekeen, kontuan hartu gabe umeak bizirik zeuden ala ez (Tacoma 2006, 199). Hauxe dirudi, hain zuzen, Aurelia Eustorgisen kasua. Izan ere, berak alaba bakarra izendatzen du oinordeko eta beste seme bat baino ez du aipatzen, Sarmates, baina duela gutxi hil da¹⁷. Hortaz, pentsatu behar dugu Aurelia Eustorgisek alaba bakarra izan arren testamentua egiteko momentuan, *ius liberorum* eskatu zuenean, hiru seme-alaba zituela. *Ius liberorum*aren ondoriozko pribilegioa testamentu hau gauzatu aurretik izateak ere aditzera ematen digu, Aurelia Eustorgisek iraganean beste negozio edo transakzio pribaturen bat edo batzuk bideratu zituela.

Tutoretzaren eraginkortasun eza dela eta, erromatarrek beste erakunde bat sortu zuten III. mendearen hasieran, baina ez emakume guztiak kontrolatzeko, baizik eta gazteenak, hau da, euren ustez ahulenak eta arrisku handienaren menpe zeudenak babesteko. Erakunde hori *curatela minoris* zen. Haren arabera, 12 eta 25 urte bitarteko emakumezko guztiek *curator* baten bitartekaritza behar zuten ia edozein negozioetarako edo legezko ekintza aurrera eramateko. Hiru seme-alaba zituztenek, baldin eta 25 urtetik beherakoak izanda, *curatela*ren nahiz tutoretzaren menpe jarraitu behar zuten, ezin baitzuten *ius liberorum* aldarrikatu (Arjava 1996, 115). Honek, hortaz, aditzera ematen digu Aurelia Serenilla 25 urte baino gazteagoa izango zela.

¹⁷ Sarmates duela gutxi hil dela dirudi, oraindik bere gorpuaren zaintza gauzatzen ari direlako: “Sarmates, (...), my deceased son, on the grounds of the care of his corpse (...)” (ikus. eranskinak 7.1.2).

Erromatarrek Egipton ezartzean, ptolomeotarren garaian nagusi zen esparru pribaturako sistema elebiduna sistema bakar batek ordezkatu zuen; sistema berri hura greziarra zen ia bere osotasunean, eragin egiptiar gutxi batzuk izan arren. Kontratu demotikoak, eta horiekin egiptiar ohiturak, ia guztiz desagertu ziren jada K.o. I. mendean. Hau da, gai pribatuak helenizatu egin ziren. Horrela, lagidar garaian zehar, emakume greziarrek eta helenizatutakoek baino ez zuten *kyriosaren* beharra; baina erromatar garaian zehar, berriz, guztiek beharko zuten. Helenizazioa horren ongi lortu zen esparru honetan ezen *kyriosaren* sistema luzaroan mantendu zen behin Karakalak 212an hiritartasun eskainita (Vandorpe 2012, 267). Hau bereziki deigarria da, erromatar *tutela* greziar zaindaritza baino faboragarriagoa zelako. Ez ditugu zehatz mehats ezagutzen zaindari greko egiptiarren ezaugarriak baina badakigu greziar praktikak *kyriosaren* bitartekaritza erromatar zuzenbideak baino kasu gehiagoetan exijitzen zuela. Bestalde, *kyriosa* emakumearen aita izaten zen eta, behin ezkondua, senarra bihurtzen zen *kyrios*; senarra hilez gero, semeak edo beste senide batek betetzen zuen paper hori. Erroman, berriz, senarra ezin zen *tutor* izan eta guri dagokigun garaian senideek oso kasu gutxitan betetzen zuten funtzio hori. Tutorea senidea ez izatea faboragarriagoa zen emakumeentzat, haien gainean ezarritako kontrola ahulagoa izango zelako (Evans Grubbs 2002, 35).

Egipton edozein zaindari, egiptiar-greziarra nahiz erromatarra, izendatzeko erabiltzen zen terminoa *kyrios* zen, oso nahasgarria suertatu zitekeena. Hori dela eta, zenbait dokumentuetan zehatz egin zuten “zuzenbide erromatarraren arabera” *kyriosa*¹⁸ zutela. Horrez gain, papiro ugari kontserbatu dira non emakumeek Egiptoko prefektuari “Julio eta Titoren legearen eta senatuaren dekretuaren arabera”¹⁹ tutorea izendatzea eskatzen dioten. Bi adibide hauek aditzera ematen dute erromatar terminologia barneratuz joan zela Egipton; baina, ordea, ez dute ziurtatzen *tutelaren* erakunde erromatarra bere osotasunean ezarri zenik, behintzat bere eduki eta forma juridikoari dagokionez. Arjavaren arabera, erromatarren *tutela mulierum* eta tokiko zaindaritza horren antzekoak zirenez, asimilatuak izan ziren. Erromatar ofizialek erromatar terminologia erabiltzen zutenez, hiritarrak berdina egiten hasiko ziren, nahiz eta sarri terminologia errealitatearekin bat ez etorri (1996, 119). Aurelia Serenillaren kasuan, badirudi bere zaindaria greziar praktikaren arabera dela, ez bakarrik ez

¹⁸ “*Kyrios* “according to Roman law””: Arjava 1996, 119.

¹⁹ “*Guardian to be named* “according to the Julian and Titian law and the decree of the senate””: Arjava 1996, 119.

duelako esaten “zuzenbide erromatarraren arabera” zela, baita zaindaria bere senarra delako.

Ius liberorum pribilegioak, berriz, *tutela* erromatarrak baino arrakasta handiagoa izan zuen Egipton, batez ere, *bouletaien* klaseko emakumeen artean (Evans Grubbs 2002, 38). Hasierako garaietan, dozena bat papiro baino ez ditugu non emakumeek eskubide hori aldarrikatzen duten, baina, behin Karakalaren ediktua emanda, eguneroko gauza bihurtu zen²⁰, gero 325etik aurrera bere erabilerak berriro behera egiteko. Esan beharra dago egitate honek ez duela III. mendean tutoretzaren inguruan jaso diren aipamenekin bat egiten; izan ere, *Constitutio Antoniniana* eman eta hurrengo bi hamarkadetan zehar, *kyriosaren* figura dokumentu anitzetan aurkitzen dugu, baina hortik aurrera, ia ez dugu inoiz topatuko. Egoera honek zalantzak sortzen ditu. Printzipioz, *kyriosaren* figura ez agertzeak esan nahi du tutoretzaren erakundea desagertzen ari zela, baina, orduan, zergatik aldarrikatu *ius liberorumaren* pribilegioa? Arjavak eta Evans Grubbsek diote estatus kontua izan zitekeela; hau da, *ius liberorum* prestigioa ematen zuen eskubidea zela eta, berez, *kyriosaren* erakundea desagertzen ari zela. Euren postura defendatzeko demostratu dute pribilegio hau zenbait emakumeren hilarrien inskripzioetan aurkitu dela eta agiri askotan aipatu egin zutela nahiz eta dokumentuak jasotzen zuen egintzarako tutorearen parte hartzea beharrezkoa ez izan. Zentzu horretan, Aurelia Serenillaren *kyriosa* agertzea formalitate hutsa izan zitekeen edo salbuespen bat. Hala ere, ezin da baieztatu, bereziki kontuan izanda, Aurelia Serenillarena eta Aurelia Eustorgisena emakumeek III. mendean egindako orain arte aurkitu diren testamentu bakarrak direla (1996, 121; 2002, 38).

Edozein kasutan ere, tutoretzaren erakundea desagertzeak ez du zertan esan nahi gizonezkoen parte hartzea amaitu zenik; horrela, emakumeen dokumentuetan gauza arrunta izaten da gizonezkoak eta, bereziki, senarrak agertzea emakumei laguntzen (Arjava 1996, 122). Hau dugu, hain zuzen, Aurelia Eustorgisen kasua, zeinari senarrak testamentua bere izenean idazten dion. Izan ere, kontuan izan behar dugu gauza bat legeak esaten duena dela eta beste bat errealitatean gertatzen zena. Hau da, posible da, emakumeek gizonezko baten bitartekaritza legez behar izan ez arren, nahiago izatea edo seguruago sentitzea bere laguntzarekin. Zentzu honetan alfabetatzearen auzia kontuan

²⁰ *Ius liberorum* aldarrikatzeko ezinbestekoa zen hiritar erromatarra bihurtzea: Evans Grubbs 2002, 38. Horregatik zentzuzkoa da, behin inperioko emakume guztiek hiritartasuna eskuratuta, pribilegio honen erabilera biderkatzea.

izan behar dugu. Egipton greziar alfabetatzea emakume gutxi batzuek, bereziki klase altuetakoek, zuten gaitasuna zen; hau da, zenbaitek idazten bazekiten ere, orokorrean, gutxi eta goi mailakoak izaten ziren (Rowlandson 1998, 14). Ondorioz, eta Aurelia Eustorgisen kasuan ikus dezakegunez, alfabetatua zen pertsona baten laguntza jasotzeak ezinbestekoa dirudi. Normalagoa zen pertsona hori gizonezkoa izatea, gehiago zirelako irakurtzen eta idazten zekitenak, baina baita bere sexu hutsak segurtasun handiagoa eskainiko ziolako. Era berean, logikoa dirudi pertsona hori gertuko pertsona bat, senarra adibidez, izatea.

Behin emakumearen alderik aktiboena -ondasunak transmititzeko eta testamentua egiteko gaitasuna- aztertuta, bere alde pasiboa, hau da, ondasunak izateko eta jasotzeko gaitasuna, aztertu beharra dago. Izan ere, emakumea testamentugile izateak aditzera ematen digu emakumeak bere ondare propioa zuela. Hau logikoa da, ondasun propiorik izan ez gero, horiek ezin direlako besterendu.

Aurreko atalean adierazi den moduan, ezer gutxi dakigu emakume hauen ondasun kantitate eta izaeraren inguruan; dakigun bakarra da Aurelia Eustorgisek etxe bat zeukala eta Aurelia Serenillak lurak zituela. Bigarren honen inguruan, esan beharra dago, emakume batek lurak izatea aldaketa handia suposatzen duela ptolomeotar garaiei begira. Lagidar Egipton landa lurraren gehiengoa publikoa zen eta estatuaren menpe zegoen; horrela oso lur gutxi zegoen partikularren esku eta, are gutxiago, emakumeen esku (Manning 2003, 179). Ptolomeotarren amaieran jada zenbait lur pribatu bihurtu ziren baina, erromatarren etorrerak prozesua azkartu zuen. Horrela, K.o. lehenengo lau mendeetan Egiptoko ia lur guztia pribatua eta besterengarria bihurtu zen (Tacoma 2006, 4). Hemendik aurrera, emakume lurjabeen figura ohikoa izango da; horrela, kontserbatu diren erromatar Egiptoko lur zerrendek emakumeek herrietan lurren seiren edo laurden baten jabetza zutela aditzera ematen dute (Arjava 1996, 71). Hortaz, Aurelia Serenilla ez dugu salbuespena.

Emakumeek ondasunak jasotzeko bi modu nagusi zituzten: dotearen bitartez eta, batez ere, testamentuaren bitartez (Gardner 1986, 181). Dotea, zaindaritza bezala, Antzinateko kultura askotan aurkitzen dugun ohiko praktika da. Orokorrean aitak ematen zion alabari, baina amak ere eman ziezaiokeen. Bere helburu nagusiak familia berriaren gastuetan laguntzea eta emazteari, dibortziaz edo alargun geratuz gero, kapital propioa eskaintzea ziren. Ezkonsaria oso baliotsua izan zitekeen eta benetako

ondasunak bil zitzakeen bere baitan. Egipton, Erromarekin alderatuta, doteak ez zuen ondasun higiezinik biltzen, bakarrik dirua eta ondasun higigarriak; bestalde, ezkontzak indarrean jarraitzen zuen bitartean, dotea senarraren jabetza bihurtzen zen. I. mendetik aurrera, dotearen garrantzia murriztuz joan zen eta erakunde berri bat agertu zen, *parapherna*, emakumearen eguneroko ondasunak biltzen zituen eta, berez, emakumearena baino ez zena (Arjava 1996, 52-53).

Herentziari dagokionez, ondarea gurasoengandik seme-alabei transmititu behar zaiela sentimendu unibertala da. Baina zein proportziotan banandu behar den beste gauza bat da. Erromatar zuzenbidearen arabera, aitek testamenturik uzten ez bazuen seme-alaben artean banatu behar zen zati berdinetan eta seme-alabarik eduki ez gero, anai-arreben artean banatu behar zen, berriro, zati berdinetan. Hala ere, *intestate* ondorengotza ez zen arau orokorra Erroman ezta Egipto erromatarrean eta jendeak nahiago izaten zuen testamentua egitea (Arjava 1996, 62). Izan ere, Erroman testamentua hiritarraren borondatezko egintzarik garrantzitsuena bihurtu zen, hura egin gabe hiltzea desohoretzat hartu zelarik (Argüello 1998, 485). Legeak flexibilitate handia eskaintzen bazuen ere, oso ohikoa izaten zen ondarea seme-alaba guztien artean zati berdinean banatzea. Hala ere, orokorrena semea alaba baino gehiago faboratzea zen. Erromatar Egipton, Inperioko lurralde gehienetan bezala, sarri, gizonezkoek lurrak jasotzen zituzten bitartean, emakumeek ondasun higigarriak jasotzen zituzten; eta lurrak jasoz gero, semeek baino neurri txikiagoan jasotzen zituzten. Hori bai, semerik ez bazegoen, nahiago izaten zen ondarea alabari uztea beste senide batzuei uztea baino.

Aurelia Eustorgisen testamentuak esandakoa aditzera ematen du, alaba izendatzen baitu oinordeko. Agian Sarmates bizirik egongo bazen, parterik handiena berak jasoko zuen eta alabak, berriz, gutxiago eskuratuko zuen. Bestalde, testamentu honetan ulertzera ematen da Aurelia Eustorgisek semearen ondarea jaso duela hura hil ostean. Hortaz, pentsa dezakegu, Sarmatesek ez zuela seme-alabarik izango eta ama oinordeko izendatu zuela. Horrek, esplikaturiko luke zergatik Eustorgisek aldarrikatzen duen Sarmatesen alargunak, Aurelia Tameisek, ez duela inolako eskubiderik Sarmatesen ondasunen gainean. Hala ere, seme-alabez gain beste subjektu batzuk ere izendatu zitezkeen oinordeko. Aurelia Serenillak, adibidez, ama izendatzen du oinordeko, agian seme-alabarik ez zuelako edo hauek adingabeak zirelako. Bere helburua, agian, amak gero jasotako ondasunak bere seme-alabei transmititzea izan

zitekeen. Rowlandsonen aburuz: *“Since no secondary heirs are named, Serenilla evidently was willing to let her estate pass to her other heirs by the rules of intestate succession if her mother predeceased her”* (1998, 198). Horrez gain, testamentuetan legatu zehatzak egitea oso ohikoa zen eta, orokorrean, gizartearen edozein mailatan, legatariak testamentugilearen etxeko eta familiako kide gertuenak izaten ziren (Gardner 1986, 180), Aurelia Serenillaren kasuan, bere senarra.

Hortaz, esan dezakegu, erromatar agintea nahiko faboragarria suertatu zela Egipton emakumearen ondare gaitasunari begira. Emakumeak testamentuak egiteko gaitasun nahiko zabala zuen eta denborak aurrera egin ahala tutoretzaren erakundea ahulduz joan zen. Hala ere, aldi berean, esan beharra dago gizonezkoen parte hartzea emakumeen egintza pribatuetan, modu ez ofizialean bada ere, orokorrean beti mantendu zela. Bestalde, ondareak jasotzeko gaitasunari dagokionez, emakumearen egoera nahiko ona bazen ere -lurren jabe izan baitzitekeen eta testamentuetan zati handiak, eta nagusia baita, jaso baitzitezkeen- orokorrean gizonezkoena baino txarragoa izan zen beti.

4.4. Familia-gatazkak

Testamentuek ikusi bezala, gizabanakoek inguruko informazio desberdina eskaini dezakete: euren gizarte estatusa, etnia edo gaitasun juridikoari buruzkoa; baina horrez gain, informazio pertsonala ere eskaini dezakete. Bi papiro hauetako ezaugarri interesgarrienetako bat Aurelia Eustorgisen testamentuan ikus daiteke, bertan familiako kideen arteko gatazka baten inguruan hitz egiten baita. Aurelia Eustorgisek argi eta garbi uzten du ez duela nahi bere semearen alargunak bere ondaretik edo semearenetik ezer jasotzea, emakume honen eskuetan jasotako tratu desegokia dela eta. Horrez gain, Aurelia Eustorgisek aldarrikatzen du bere errainari jabetza batengatik ordaindu diola eta, hortaz, ezin diola ezer erreklamatu: *“pursuant to her declaration to me in a third written quit claim that she had been paid in full for the property of hers which she alleged our son had”* (ikus. eranskinak 7.1.2).

Datu oso interesgarria da, orokorrean familia barneko tratu ezegokiez ari garenean, gizonezkoek emakumezkoek gauzatutakoez aritzen garelako eta, kasu honetan, emakume batek beste bati gauzatu dio. Zentzu honetan, Scheerlincken «Inheritance Disputes and Violence In Women’s Petitions From Ptolemaic Egypt» artikulua baliagarria suertatzen da, ptolomeotar Egiptori buruz bada ere eta ez erromatar

Egiptori buruz, gai honen inguruan mintzatzen baita. Artikulu honetan autoreak emakumeek erregeari edo ofizialei zuzendutako eskaerak aztertzen ditu beraien eguneroko bizitza ezagutzeko helburuarekin. Eskaera horien objektua biolentzia ekintzak eta, batez ere, herentzia arazoak dira, non eskatzaileak ondasun bat edo batzuk berari dagozkiola aldarrikatzen du. Bestalde, ohikoena egite hauek familiako kide baten aurka zuzenduta egotea da, harekin akordio batera heltzeko ezintasuna dela eta. Deigarria dena da, biolentzia nahiz herentzia kasuetan emakumea behin baino gehiagotan agertzen dela akusatuaren lekuan (2011-2012, 163-176). Hortaz, Aurelia Eustorgisen eta Aurelia Tameisen arteko gatazka ez litzateke ezohiko gauza izango. Dena den, gai honek ez du behar beste arreta jaso eta hobeto ulertzeko ikerketa sakonagoa eskatzen du etorkizunean.

5. ONDORIOAK

Aztertutako bi papiroetan III. mendeko emakume testamentugileei buruzko irudi nahiko zehatza aurki daiteke. Legez hiritar erromatarak dira, baina ezaugarri kultural eta sozialei dagokienez, greziarrak dira ia bere osotasunean, zenbait elementu erromatar bereganatu dituzten arren, akulturazio prozesu baten seinale. Deitura greziarrak dituzte, hizkuntza grekoa erabiltzen dute, Aurelia Eustorgisen kasuan, testamentu erdua grekoa da eta beraiei lotutako gizonaek izaera greziarra duten karguak egikaritzen dituzte. Bestalde, goi mailako kideak eta aberatsak dira; Aurelia Serenilla III. mendean sortu den klase bouletikoaren parte da zalantzarik gabe, bere aita Hermopoliseko *bouleko* kontseilari ohia baita eta bere senarrak hiriko kargu administratibo garrantzitsua betetzen baitu; Aurelia Eustorgisen kasua ez da horren argia, baina talde horretakoa dela pentsa dezakegu, bere semeak pertsona garrantzitsu batekin, Alexandriako gimnasiarkarekin, negozioak gauzatu baititu. Horrez gain, ondare gaitasun nahiko zabalak dituzte, ondasunen jabe izan baitaitezke eta horiek *mortis causa* transmititu baititzakete. Hala ere, batek besteak baino askatasun handiago dauka, zaindaririk eta *curatorrik* gabe jarduten baitu. Zentzu honetan erromatar agintearen eta erromatar hiritartasuna eskuratzearen onurak azpimarratu behar dira, aurreko garaietan jatorri greziarreko emakumeek inoiz ez zutelako tutorerik gabe jarduteko aukerarik izan eta. Honek aditzera ematen digu, emakumeak gutxika erromatar lege eta ohituretara hurbiltzen joan zirela, faboragarriagoak ziren abantailak eskuratzeko helburuarekin. Hala ere, aldi berean, ezin da ahaztu modu ez-ofizialean bada ere, Aurelia Eustorgisen

testamentuan senarrak ere parte hartzen duela; gertakari hau greziar tradizioaren indarraren eta mantentzearen ondorioa izan daiteke, non senarraren boterea emakumearen gain erromatar nahiz egiptiar gizartean baino askoz handiagoa izan zen beti.

Edozelan ere, bi papiro hauek III. mendean emakumeek egindako testamentu bakarrak diren heinean, ia zalantzarik gabe esan daiteke emakume testamentugileak ez zituela ezaugarri horiek izango beti. Zentzuzkoa da uste izatea, aberatsek eta goi mailako kideek legezko dokumentu hauek gehiagotan egingo zituztela, ondasun gehiago zituztelako, kontserbatu den dokumentazio gehiena beraiena delako eta prestigio kontua dela eta, baina seguruenik beste hainbatek ere egingo zituzten, batez ere, beste garai batzuetako topatutako testamentuek aditzera ematen dutenaren arabera. Bestalde, ezin da ukatu eskainitako informazioa oso erabilgarria dela garaiko emakumea eta, batez ere, metropolietako goi mailako emakumea ezagutzeko eta III. mendean emandako akulturazio prozesuak eta gizarte aldaketak ezagutzeko ere.

Amaitzeko, eta iritzi moduan, gustatuko litzaidake esatea, nire ustez, erromatar Egiptoko emakumearen lan zientifikoek bultzada handia jasan badutela ere azkeneko hamarkadetan, oraindik asko geratzen dela ikertzeko. Honekin lotuta, deigarria da, emakumearen egoerari buruz idazten denean, askotan, gizonezkoekin dituen harremanen arabera begira egiten dela, emakumeen arteko interakzioa baztertuz. Horrela, haren figura jaraunse bezala aztertzen denean, orokorrean, aitak edo senarrak ondasunak uzten dizkiotenen kasuei buruz hitz egiten da. Era berean, familia-gatazkei edo tratu txarrei buruz aritzean, gizonezkoak emakumezkoari gauzatuakoak ikusten dira bereziki. Etorkizunean komenigarria izango litzateke Egiptoko garai honetako emakumeen arteko harremanetan sakontzea, bai horizontalean, bai bertikalean, gizartea bere ikuspegitik aztertzeko eta ez gizonekiko bere erlazioaren arabera. Eta honetan, papiroena, iturri oso zabala dena baina ez dena besteak bezain beste aztertua izan, oso emankorra izan daiteke historiagileontzat.

6. BIBLIOGRAFIA

- AMELOTTI, M., 1966, *Il testamento romano attraverso la prassi documentale. I. Le forme classiche di testamento*, Florentzia.
- ARGÜELLO, L. R., 1998, *Manual de derecho romano*, Buenos Aires.
- ARJAVA, A., 1996, *Women and Law in Late Antiquity*, New York.
- BAGNALL, R., 1993, *Egypt in Late Antiquity*, Princeton.
- BAILEY, D. M., 2012, «Classical architecture», C. Riggs (arg.), *The Oxford Handbook of Roman Egyptean*, Oxford, 189-204.
- BEVAN, E., 2014, *A History of Egypt under the Ptolemaic Dynasty*, New York (1.º argitalpena 1927).
- CAPPONI, L., 2005, *Augustan Egypt. The Creation of a Roman Province*, New York.
- EVANS GRUBBS, J., 2002, *Women and the Law in the Roman Empire: A Sourcebook on Marriage, Divorce and Widowhood*, Londres-New York.
- FISCHER-BOVET, C., 2013, «Ethnicity, Greco-Roman Egypt», R. S. Bagnall et al. (arg.), *The Encyclopedia of Ancient History*, Oxford, 2519-2521.
- GARDNER, J. F., 1986, *Women in Roman Law and Society*, Londres.
- GONIS, N., THOMAS, J. D., HATZILAMBROU, R. (arg.), 2006, *The Oxyrhynchus Papyri. Volume LXX*, Londres.
- KELLY, B., 2011, *Petitions, Litigation and Social Control in Roman Egypt*, Oxford.
- LEWIS, N., 1983, *Life in Egypt under Roman Rule*, Oxford.
- LORTON, D., 2000, *Egypt in the Age of Cleopatra: History and Society under the Ptolemies*, New York (1.º argitalpena, 1997).
- MANNING, J. G., 2003, *Land and Power in Ptolemaic Egypt: The Structure of Land Tenure*, Cambridge.

PARCA, M. G., 2004, «Papyrology, Gender, and Diversity: A natural ménage à trois», M. B. Skinner (arg.), *Gender and Diversity in Place: Proceedings of the Fourth Conference on Feminism and Classicsean, May 27-30*, University of Arizona Tucson, Arizona.

<http://www.stoa.org/diotima/essays/fc04/Parca.html> (2017/05/12an kontsultatuta)

RIGGS, C., 2012, «Introduction», C. Riggs (arg.), *The Oxford Handbook of Roman Egyptean*, Oxford, 260-276.

ROWLANDSON, J., 1995, «Beyond the Polis. Women and economic opportunity in early Ptolemaic Egypt», A. Powell, *The Greek Worldean*, 301-322.

— 1998, *Women and Society in Greek and Roman Egypt: A sourcebook*, Cambridge.

— 2004, «Gender and cultural identity in Roman Egypt», F. McHardy eta E. Marshall (arg.), *Women's Influence on Classical Civilization*, Londres, 151-166.

— 2010, «Administration and law: Graeco-Roman», A. B. Lloyd (arg.), *A Companion to Ancient Egypt. Vol. Iean*, Oxford, 237-254.

— 2013, «Dissing the Egyptians: Legal, Ethnic, and Cultural Identities in Roman Egypt», A. Gardner, E. Herring, K. Lomas (arg.), *Creating Ethnicities & Identities in the Roman Worldean*, Londres, 213-247.

SCHEERLINCK, E., 2011-2012, «Inheritance Disputes and Violence in Women's Petitions from Ptolemaic Egypt», *Papyrologica Lupiensia* 20-21, 163-176.

TACOMA, L. E., 2006, *Fragile Hierarchies: The Urban Elites of Third-century Roman Egypt*, Leiden.

VANDORPE, K., 2012, «Identity in Roman Egypt», C. Riggs (arg.), *The Oxford Handbook of Roman Egyptean*, Oxford, 260-276.

7.1.2. Aurelia Eustorgisen testamentua

Iturria: NOWAK, M., 2015, *Wills in the Roman Empire. A documentary Approach*, Varsovia, 279-281.

M. Cbr. 318 = P. Lips. I 29

AD 295

Hermopolis Megale

Text after *M. Cbr. 318*

Translation: ROWLANDSON, *Women and Society* (cit. above, p. 263), no. 145 (below)

[Αὐρηλία Εὐστόργις ---|--- οὐλή ---]ω ἀριστερῶ χρηματίζ(ουσα) χωρὶς κυρί[ο]υ τέ[κνων] δικαίω κατὰ τὰ Ῥωμαίων ἔθνη ---| ἀναγρα(φομένη) ἐν τῇ λα[μπ]ροτάτῃ Ἐρμοῦ πόλει ἐπ' ἀμφόδου φρουρ[ί]ου λιβὸς μετὰ συνεστῶτος [ἐμαυτῇ Αὐρηλίου] Τριαδέλφου | [Ἐρμοφίλου ἀναγρα(φομένου) ἐπ' ἀμ]φόδου πόλεως λιβὸς τῇ ἐμαυτῆς θυγατρὶ Αὐρηλία [Υ]περεχίω τῇ καὶ Ἀμμωνα[ρίω] χαίρειν. εἴη μὲν μοι ὑγιαί- [νειν]καὶ τῶν ἡμετέρων ||⁵ [ἀπολαύειν,] ἐὰν δέ, ὃ μὴ εἴη, συμβαίη τ[ί] μοι ἀνθρώπι- νον, ὅπερ ἀπεύχ[ο]μαι, κληρονόμον σε μ[ό]ν[η]ν κατὰ πάντας τοὺς ν[ό]μους καθί- στημι | [ὥστε αὐτεξούσι]όν σε εἶναι, ὅπου δὲ βουληθῆς, πορεύεσθαι, ἅτε δὲ τῆς ἐνόμου ἡλικίας γεγεννημ[ένην.] καὶ δι' ἀφορμὴν ταύτην πάντα τὰ ἐ[[μαυτῆς σοι] ἐπανεθέμην διὰ τοῦ[δε] τοῦ Ἑλληνικοῦ βουλήματος νοο[ῦ]σα καὶ φρονούσα. πρὸς [- --]περ γὰρ περὶ ἐμέ νόσον ὑφορωμέ[[νη ἀνθρώ]πινόν τι παθεῖν, νοοῦσα καὶ φρονούσα διεθέμην τόδε μου τὸ βούλημα ὑπὲρ [τοῦ μὴ] ἐξεῖναι ὥτινιο[ῦ]ν ἀντιπαραβῆναι | [ἀ διεθέμη]ν, μήτε τὴν γενομένην σύμβιον τοῦ ἀπογενομένου μου υἱοῦ Σαρμάτου Α[ῦ]ρ[η]λίαν Ταμείν {μὴ} ἐπ[ι]βῆναι τῇ ἡμετέρα οἰ[κ]ία ||¹⁰ [οὔση] ἐπ' ἀμφόδου φρο[υ]ρίου λιβὸς, μηδὲ παρακ[ύ]πτ[ειν] ὥτινιοῦν πράγμα[τι] δια[φ]έρον[τ]ί μοι ἢ καὶ αὐτῶ τῶ ἀπογενομένῳ | [κηδεμ]ονείας τοῦ σώματος αὐ[τ]οῦ ἔνεκεν, ἀνταρ- κούσης σου τῆς τε προδεδηλωμένη[s μ]ου θυγατρὸς καὶ κλη[ρο]νόμου καὶ τῶν ἡμε[[τέρων] καὶ αὐτ[ο]ῦ[δε] τοῦ Σαρμάτου φ[ί]λων. α]ντάρκης γὰρ καὶ ὑπ' αὐ[τ]ῆς ἔπαθον· πρὸς ἃ οὐ β[ού]λομαι αὐτὴν παρατ[ύ]χε[ι]ν τοῖς ἡμετέροις | [πράγμασι], μάλιστα μη[δέ]ν ἔχουσα<v> πρὸς μὲ ἢ τὸν ἀπογενομέν[ό]ν μου υἱόν, ἀκολού[θως] καὶ ἢ ἔθετό μοι τρ[ί]τη ἀνεγκλησία πλη[[ρωθεῖσα ὦ]ν ἔφασκεν ἔχειν α[ῦ]τ[ῆς] τὸν ἡμέτερον υἱόν. γειώσκειν δέ σε βούλομαι [ὅτι ἀπὸ τ]ῶν ὀφειλομ[ένων] τ[ῶ]ν αὐτῶ υἱῶ μ[ο]ν ||¹⁵ [ὑπὸ ---]ιου γυμνασιάρχου [Ἀ]λεξανδρείας ἀπὸ τιμῆς ὀθόνης ἀργυρίου καί[νου] τά[λαντα] δώδεκα μόνο[ν] μο[ι] προήκατο ἐν | [--- καὶ ---] θ[ε]βαικοῦ κνίδ[ε]α ἕκα[τ]ὸν πρὸς τὸ μετε[λ]θεῖν σε αὐτ[ὸ]ν περὶ τῶν λοιπ[ῶν] ὀφειλομένων μοι ὑ[π] αὐτοῦ. τὸ Ἑλληνικὸν | [βούλημα κύρι]ον ὃ καὶ δισσόν σοι π[ρο]ηκ[ά]μην, ὡς ἐν δημο- σίῳ ἀρχεῖῳ κατακείμενον, καὶ ἐπε[ρωτ]ηθ[εῖσα] νοοῦσα καὶ φρονούσα ὠμολό[γησα]. (ἔτους) ια ||[καὶ (ἔτους) ι τῶν κ]υρίων ἡμῶν Διοκλητι[α]νοῦ καὶ Μαξιμιανοῦ Σεβα- στῶν καὶ (ἔτους) γ τῶν κυρ[ί]ων ἡμῶν Κωνσταντίου καὶ Μαξιμιανοῦ τῶν | [Ἐπι- φανεστά]των Καισάρων Εὐσεβ[ῶ]ν Εὐτυχῶν Σεβαστῶν ὑπα[τ]ε[ί]α[s] Νουμμίου Τούσκο[ν] καὶ Ἀννίου Ἀνυλλεῖ[ν]ου τῶν λαμπροτάτων ||²⁰ [--- (hand 2) Αὐρηλία Εὐστόργι]ς διεθέμην ὡς πρ[ό]κειται. Αὐρ[ῆ]λιος Τριάδελ[φος] Ἐρμοφίλου σ[υ]μ[π]άρκε[υ]μι αὐτῇ καὶ ἔγγρ[α]φα ὑπὲρ αὐτῆς {μῆς} μὴ εἰδυῖης γράμματα.

Aurelia Eustorgis ... with a scar on her left ... styling herself as without guardian by the *ius liberorum* according to Roman custom, registered in the most illustrious city of Hermopolis in the West City District, with the assistance of Aurelius Triadelphos son of Hermophilos, registered in the West City District, to my own daughter, Aurelia Hyperechion also called Ammonarion, greetings. May I enjoy good health and benefit from our property; but if – may it not happen! – anything happens to me, which I wish may not come about, I appoint you as sole heir according to all the laws so that you may be fully empowered to go wherever you wish, inasmuch as you have become of legal age. On account of this reason, I have devolved upon you all my property through this Greek testament, being of sound intention and mind. For suspecting that a mortal illness has come upon me, but being of sound intention and mind, I have drawn up this my will so that it may not be possible for anyone to go against my dispositions, and so that Aurelia Tameis, the former wife of my deceased son, Sarmates, may <not> enter our house, which is in the West Fort District, nor meddle with any property that belongs to me or to him, my deceased son, on the grounds of the care of his corpse, you, my above-described daughter and heir, being self-sufficient with our and Sarmates' friends. For I, too, though independent, have suffered at her hands, as a result of which I do not wish her to inherit any of our property, especially since she has no claim against me or against my deceased son, pursuant to her declaration to me in a third written quit-claim that she had been paid in full for the property of hers which she alleged our son had. I wish you to know, that of what was owed to my same son by ..., gymnasiarch of Alexandria, for the price of linen, twelve talents of new silver, he had delivered to me only one (talent) ... and of Theban (wine) one hundred *knidia*, with respect to your pursuing him at law concerning the balance owed me by him. The Greek testament, which I have issued to you in double copy, is valid as it deposited in a public archive, and having been asked the formal question, being of sound intention and mind, I have agreed. In the 11th and 10th year of our lords Diocletian and Maximian, Augusti, and the 3rd year of our lords Constantius and Maximian, the most glorious Caesars, in the consulship of Nummius Tuscus and Annius Anullinus, the most excellent. I, Aurelia Eustorgis, have made this testament as above. I, Aurelius Triadelphos son of Hermophilos, am present with her and have written on her behalf as she is illiterate.

7.2. Papiroen argazkiak

7.2.1. *P. Princ. II 38* eta *P. Princ. II 30*

Iturria: <http://papyri.info/images/8c/princeton.apis.p615.f.0.300> (2017/05/25ean kotsultatuta)



7.2.2. *M. Chr.* 318 = *P. Lips.* 1 29


Iturria: https://papyri.uni-leipzig.de/rsc/viewer/UBLPapyri_derivate_00035823/PLipsInv479R72.jpg (2017/05/25ean kontsultatuta)



7.3. Mapak

7.3.1. Greko-erromatar garaiko Egipto

Iturria: ROWLANDSON, J. (arg.), 1998, *Women and Society in Greek and Roman Egypt. A sourcebook*, Cambridge, xix.



7.3.2. Egiptoko *nomoi*en banaketa erromatar garaian

Iturria: <http://www.egyptsearch.com/forums/ultimatebb.cgi?ubb=reply;f=15;t=008856;replyto=000002> (2017/05/25ean kontsultatuta)



7.4. Argazkiak

7.4.1. Erromatar garaiko Hermopolis Megaleko zentroaren berreraiketa

Iturria: Bailey, D. M., 2012, «Classical architecture», C. Riggs (arg.), *The Oxford Handbook of Roman Egyptean*, Oxford, 198.




FIG. 12.2 Reconstruction of the centre of Hermopolis Magna in the Roman period

Drawing by Sue Bird (1991). Copyright Sue Bird and D. M. Bailey.